

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTU TURISTIKOAK ETA OROTARAKOAK. 2020KO EKAINA

2020ko ekainean jarraitzen du Euskal AEko turismo-ostatu- sektoreak berreskuratzen, baina sarreren eta ostatu-gauen beherakadak % 82 gainditzen du

Ekainean 730 ostatuk jardueraren bat izan dute, maiatzean baino % 82 inguru gehiagok eta guztizkoaren % 63,4k; guztira, 115.692 ostatu-gau izan dira, 2020ko maiatzeko bikoitza

Maiatzaren 9ko SND/399/2020 Aginduaren bidez, jarduera etetea agindu zuen martxoaren 19ko SND7257/2020 Aginduaren arabera irekiera eten zuten hotel eta turismo-establezimenduak berriz ireki ahal izateko mugak eta baldintzak ezartzen dira. Une horretatik aurrera, establezimenduak pixkanaka joan dira irekitzen, eta joerari eutsi egin zaio, 2020ko ekainean.

Guztira, 730 establezimenduk ostatu-eskaintzari eutsi diote 2020ko ekainean Euskal AEn, COVID-19ari aurre egiteko hartutako salbuespenezko neurrien ondorioz ezarritako jardueraren ia erabateko etetearen ondoren, apirilean (109 establezimendu zabalik) eta, baldintza ugarirekin, maiatzean (400 establezimendu zabalik).

Itxitako establezimenduen kopuruaren gainean hartutako neurrien inpaktua arindu egin da ekainean, aurreko hilen aldean. Hala, hil osoaren itxierak 2020ko ekainean 417 establezimendutan izan du eragina; maiatzean 745 establezimendu egon ziren, beraz, % 44 gutxiago ekainean, eta apiril osoan ixita egon ziren 1.037 establezimenduak baino % 60 gutxiago. Hala ere, 2019ko hil berarekin erkatuz gero, agerian uzten da sektorean efektuak luzatu egin direla: 2019an 88 establezimendu baino ez ziren itxita egon ekainean, hainbat motibo tarteko; alegia, aurtengo ekainean 2019ko ekainean itxita egon zen kopurua halako bost ia egon da itxita.

Jarduera izan duten eta itxita mantendu diren ostatu turistikoak. COVID19 aldia

2020	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Jarduerarekin	Itxitak	Jarduerarekin	Itxitak	Jarduerarekin	Itxitak	Jarduerarekin	Itxitak
Ekaina	730	417	130	73	254	141	346	203
Maiatza	400	745	63	140	148	247	189	358
Apirila	109	1037	15	188	48	347	46	502
Martxoa	943	204	171	32	324	72	448	100
Ekaina 2019	1031	88	183	15	358	29	490	44

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Egoera antzekoa da hiru lurraldeetan: Arabak maiatzaren egunen batean 63 establezimendu izan ditu zabalik eta, ekainean, 130; Bizkaian, maiatzean 148 establezimendu egon dira zabalik eta, ekainean, 254, eta, Gipuzkoan, 189 egon dira zabalik maiatzean eta 346 ekainean.

Gaualdiak eta sarrerak Euskal AEko hotel, landa ostatu eta apartamentu turistikoetan. 2020ko Ekaina

	Gaualdiak		Sarrerak	
	2020/06	m/m-12 (%)	2020/06	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	115.692	-82,2	55.586	-82,8
Araba/Álava	23.388	-71,5	9.648	-77,2
Bizkaia	46.772	-83,5	23.037	-84,2
Gipuzkoa	45.532	-83,9	22.900	-83,1

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Hotel, landetxe eta turismo-apartamentuetan, 55.586 sarrera erregistratu ziren 2020ko ekainean, alegia, % 82,8ko beherakada egon da, aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaian EAEko sarrera guztien % 41,4 kontzentratzen da, baina sarrerak, guztira, % 84,2 egin du behera. Gipuzkoan erkidegoko sarreren % 41,2 kontzentratzen da eta, bertan, % 83,1eko beherakada egon da, Araban, EAEko sarreren % 17,4 kontzentratzen da, eta % 77,2ko beherakada izan du.

Aztertutako establezimendu guztien ostatu-gauak behera egin zuten, era berean, % 82,2 2020 ekainean, 2019ko ekainaren aldean: % 83,5 Bizkaian, % 83,9 Gipuzkoan eta % 71,5 Araban.

Zifra horiek gorabehera, aurreko hilaren aldean egon den hobekuntza esanguratsua da; hil honetako sarrerak maiatzaren erregistratu ziren 9.714 sarrerak ia bikoiztu egiten dituzte, eta ostatu-gauak bikoitza baino gehiago izan dira (maiatzean 42.919 izan ziren eta ekainean 115.692).

Turismo-apartamentuak

Turismo-apartamentuen kasuan, 73 establezimenduk jarduera izan dute egunen batean ekainean, eta, 2020ko maiatzaren, berriz, 45ek. 28 establezimendu egon dira, guztira, aldi guztian itxita, eta 2019ko hil berean bakarrik 4.

Lurralde historikoen arabera, establezimenduak irekitzeko erritmoa antzekoa izan da. Araban, 13 establezimenduk izan zuten jarduera maiatzaren eta 16k ekainean, Bizkaian 14k maiatzaren eta 26k ekainean eta, azkenik, Gipuzkoan, 31 establezimendu egon dira zabalik aurtengo ekainean eta 18 maiatzaren.

Jarduera izan duten eta itxita mantendu diren apartamentu-establezimenduaren unitateak. COVID19 aldia

2020	EUSKAL A.E.		ARABA/ÁLAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Jarduerarekin	Itxitak	Jarduerarekin	Itxitak	Jarduerarekin	Itxitak	Jarduerarekin	Itxitak
Ekaina	73	28	16	7	26	5	31	16
Maiatza	45	55	13	10	14	17	18	28
Apirila	22	78	6	17	8	23	8	38
Martxoa	82	18	20	3	24	7	38	8
Ekaina 2019	81	4	20	1	26	0	35	3

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Euskal AEko turismo-apartamentuetan 2.854 sarrera erregistratu dira ekainean; 2019ko hil berean 9.346 izan ziren. Guztira 11.022 ostatu-gau egon dira, 2019ko ekaineko 29.374 ostatu-gauak baino % 62,5 gutxiago. Aurreko hilean, 2020ko maiatzaren, sarrerak mila baino gutxiago izan ziren (954) eta ostatu-gauak 7.869 pertsonari dagozkionak baino ez.

Lurralde historikoen arabera, Arabak 630 sarrera eta 4.466 ostatu-gau erregistratu ditu; Bizkaiak, 1.340 sarrera eta 3.746 ostatu-gau, eta Gipuzkoak, 883 sarrera eta 2.810 ostatu-gau.

Gaualdiak, sarrerak eta batez besteko egonaldia Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2020ko Ekaina

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	2020/06	m/m-12 (%)	2020/06	m/m-12 (%)	2020/06	2019/06
EUSKAL AE	11.022	-62,5	2.854	-69,5	3,86	3,14
Estatukoak	9.027	-51,1	2.647	-55,1	3,41	3,13
Atzeritarrak	1.996	-81,7	207	-94,0	9,63	3,16
ARABA/ÁLAVA	4.466	-38,8	630	-41,2	7,08	6,82
Estatukoak	3.581	-37,4	588	-37,4	6,09	6,08
Atzeritarrak	885	-44,0	42	-67,9	21,02	12,07
BIZKAIA	3.746	-66,6	1.340	-70,3	2,80	2,48
Estatukoak	3.054	-57,7	1.269	-57,0	2,41	2,45
Atzeritarrak	692	-82,7	71	-95,5	9,78	2,56
GIPUZKOA	2.810	-74,1	883	-76,5	3,18	2,89
Estatukoak	2.392	-56,6	789	-60,5	3,03	2,76
Atzeritarrak	418	-92,2	94	-94,6	4,43	3,03

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Establezimendu mota horretan ostatu hartu duten bezeroen % 92,7 Estatukoa izan da, eta atzeritarrak % 7,2 izan dira. 2019ko ekainarekin alderatuta, ostatu-gauetan turismo atzeritarra % 81,7 jaitsi da eta Estatukoa, % 51,1.

2020ko ekaineko batez besteko egonaldia establezimendu mota horretan 3,86 egunekoa izan da eta, 2019ko ekainean, 3,14koa. Lurralde historikoaren mailan, zifra horiek igotzen joan dira, aurreko urteko hil beraren aldean: Araban 6,82 egun ziren eta, orain, 7,08; Bizkaian 2,48 ziren eta, orain, 2,80, eta Gipuzkoan, 2,89 ziren eta, orain, 3,18.

COVID-19-AREN KRISIAK ETH-ETAN IZAN DUEN ERAGINARI BURUZKO OHARRA

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak **COVID-19ak** eragin duen osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu du. Ondoren hartu diren salbuespenezko neurriek eragin zuzena izan dute establezimendu turistiko hartzaileen ohiko jardueran. Itxiera ia erabatekoa izan zen, harik eta maiatzaren 9ko SND/399/2020 Agindua argitaratu zen arte; bertan, mailaz mailako irekiera mugaturako oinarriak ezartzen dira.

Pasa den ekainaren 21ean alarma-egoera amaitu ondoren, eta hotelak eta establezimendu turistikoak oro har jendeari berriz irekitzeko maiatzaren 9ko aginduan (SDN/399/2020) ezarritako mugekin eta aurretiko baldintzekin, sektore horren jarduera igotzen joan da, pixkanaka, ekainean.

Eustat-ek eskerrak eman nahi dizkie elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei, egin duten ahaleginagatik, egoerak ezohikoak izan badira ere. Haiei esker, informazio hau zabal daiteke, eta, haren bidez, bizitzen ari garen krisi honek sektorearen gainean dituen ondorioak kuantifika daitezke.

Ekaineko zabalkundea berriz ere da ohikoa; berriz ere sartu dira estatistika-taula guztiak eta datu-bankua, baina estatistikako sekretuaren ondoriozko murrizketekin.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62